

KARRI-KOTXEA



Guk eskaintzen dugun orgak, ez da beste orgaren antzerakoa. Hau, pertsona nagusientzako edo laguntza behar dutenetzako oso erabilgarria da. Pertsona hauen portzentai handi batek, dendetatik etxera ezin du zama askoko gauzak eraman,. Baita ere, etxe batzuetan oraindik ez dago igogailurik eta erosketak etxera igotzea zaila izan daiteke. Faktore guzti hauen erruz, banatzaileek lan asko eduki izan ohi dute.



Hau guztiarengatik, gure orgak hau dena konpondu dezakeela pentsatzen dugu. Batetik, teknologia berriak erabiltzen ditugu, adibidez, gure orgak sei gurpil izango ditu, hiru alde bakoitzean erraztasun handia emanez eskailerak igotzerakoan. Bestetik, ere pertsonalizazio handi bat eskaintzen digu orga apart honek, orga eusteko tokia biguna baina sendoa izango da, honela minik ez hartzeko eta hori erregulagarria izan daiteke honela edozein alturatako pertsonak erabil dezaten.

Baina gure produktuaren eginkizun nabarmenena urrunetik gidatu dezakezula da. Hau aginte-gailu batekin bat dator, zuk orgaren abiadura eta norabidea kontrolatzeko, gainera segurtasunari buruz hitz egiteko zu egon beharko zara orgaren ondoan, honela inork ez dizu lapurtzen.

Gure orga hau oraingoz ez da merkatura irten, baina orga salgai egongo da, Amazon bidez erosteko, Eroski supermekatuan, hemen, eskaintza berezi bat edukiko duela eta hainbat supermerkatu desberdinetan, DIA, LIDL edo Carrefour bezalakotan. Laburbilduz, bai fisikoki bai online erosi dezakezu gure produktua.



Hau guztia kontuan izanik, gure orga apartak balio handikoa izango den arren, erabilgarritasun handia izango du eta lortzeko oso erraza izango da, salgai egongo den dendetan. Baina zuek bezeroak izanik, eta gure produktuaren erabiltzaile izango zaretenok, ikusiko duzue nolan erraztuko den zuen bitzita.